ARLOAREN, JAKINTZAGAIAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea	Arrigorriaga BHI	**Kodea**	015072	**Ikasturtea**	2026/2027
Etapa	BATXI	**Zikloa/maila**	2		
Arloa/ Jakintzagaia/ Eremua	Artearen Historia	**Irakasleak**	Sergio Vega		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxeko proiektuak, aurreko ikasturteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Ikasleen abiapuntua

Artearen Historia, 2. Batxilergoko hautazko jakintzagaia da. Aurreko lanari eta ikaskuntza-prozesuari esker, ikasleek zeharka funtsezko konpetentzia guztiak landuko dituzte. Arreta zuzena eskeiniko zaie Herritartasunerako konpetentziari (HK); Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoari (KPSII); eta Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentziari (KAKK). Iragana aztertzeak egungo gizartea eta honen erronkak ulertzen lagunduko die ikasleei.

Ikasgelaren testuingurua

Ikasleen abiapuntua eta testuinguru orokorra zehaztu behar da. Aipatu daitekeen informazioa:

1- Talde eta ikasle kopurua: Talde bat, 6 ikaslerekin.

2- Egoera akademikoa:

-Errepikatzaileak: Ez dago errepikatzailerik.
-Jakintzagai pendienteak
-Berariazko programetan dauden ikasleak (Bidelagun, Hedatze errefortzua, ...)

3- Jarrera: ikasle batzuk ikasgaiarekiko interes handia erakusten dute.
4- Egoera sozio-ekonomikoa (bekadunak, ...)
5- Egoera emozionala (babestu beharrekoa, UPI, ...)

Ikastetxeko proiektuak

Agenda 30: ikastetxearen iraunkortasun eta kalitaterako hezkuntza programa honen bidez hezkuntza komunitatea tokiko zein planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizatu eta honen aldeko jarrerak eta konpromisoak hartzen dira. Agenda 30eko helburuak kontuan hartuko dira ikaskuntza-egoerak garatzerako orduan.

Hizkuntza Normalkuntza: Hizkuntza normalkuntza proiektuaren helburuekin bat eginez, euskararen erabilera eta kalitatea bermatzeko ahalegin berezia egingo da. Ikasleek ahoz zein idatziz modu koherentean eta egokian jarduteko ariketak eta jarduerak landuko dira ikasturtean zehar.

Hedatze: Hedatze kontuan hartu genezake gure eguneroko klaseko jardunaren konplementu eta indartze bezala, laguntza behar duten ikasleei dagokionez batez ere.

Aurreko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, IKT baliabideak, etab.

Estrategiak eta metodoak

Konpetentzien garapena bermatzeko **ikasleek zeregin aktiboa** izango dute, besteak beste, **sortzeko, erabiltzeko, aplikatzeko eta komunikatzeko aukera** emango zaie lankidetza sustatuz. **Irakasleak bideratzaile** edo bitartekari lana egingo du prozesu guztian zehar eta **espazioak, denborak eta taldeak beharren arabera antolatu**ko ditu. **Ingurune seguru bat** sortzea bilatuko da.

Hizkuntzen trataera

Etapa bukaeran ikaslearen irteera-profilean zehaztutako **hizkuntza-komunikazio konpetentzia eta konpetentzia eleanitza lortzeko**, jakintzagaiak egin beharreko ekarpenak (deskriptore operatiboetan zehazten direnak) bermatuko dituen **ikaskuntza-egoera eta atazak diseinatu**ko dira.

IDU

Ikasleen **aukera-berdintasuna eta inklusioa bermatzeko**, ikaskuntzarako oztopoak minimizatzea izango dugu helburu. Horretarako, Ikaskuntza Diseinu Unibertsalean oinarritutako erabaki metodologikoak hartuko dira hiru eremuei dagokionez:

I. Printzipioa. Irudikapen modu ugari ematea

1. Pertzepziorako aukerak eskaintzea
2. Hizkuntzarako, adierazpen matematikoetarako eta sinboloetarako aukera ugari ematea
3. Ulermenerako aukerak ematea

II. Printzipioa. Ekintza- eta adierazpen- modu ugari ematea

4. Interakzio fisikorako aukerak eskaintzea
5. Adierazpenerako eta komunikaziorako aukerak ematea

6. Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea

III. Printzipioa. Inplikazio modu ugari ematea

7. Interesa pizteko aukerak ematea
8. Ahaleginari eta iraunkortasunari eusteko aukerak ematea
9. Autoerregulaziorako aukerak ematea

Ikasleen eta irakasleen antolamendua

Ikasleak klasean binaka antolatuta egongo dira, hala ere, **beharren arabera**ko beste antolaketak ere aurreikusten dira: banaka, talde kooperatiboak, talde handia, etab.

(Irakasleek, proiektu interdisziplinarretan parte hartzerakoan, beraien arteko koordinazioa egotea ezinbestekoa izango da. Errefortzu irakasleak egotekotan, zeregina eta orduak aipatu.)

Espazioen eta baliabideen erabilera

Ikasgela da ikaskuntza prozesuaren oinarrizko tokia baina ikastetxeak eskuragarri dituen gainontzeko espazioak ere erabili daitezke, adibidez, informatika gela, liburutegia edo patioa.

Baliabideei dagokionez 2. batxilergoko Artearen Historian irakasleak erreferentzia moduan Vicens Vives argitaletxearen *Artearen Historia* testuliburua erabiliko du eta ikasleei irakasleak prestatutako materiala (aurkezpenak, apunteak, bideoak, eskemak,...) classroom-en edota fotokopien bitartez banatuko die. Horretaz gain, ikasle bakoitzak daukan eramangarriaren bidez bestelako baliabide digitalak erabiliko dira.

Artearen Historia irakasgaian eskuratutako ezagutzak indartu, sakondu, zabaldu, eta klasean ikasitako teoria eta artelanen azterketak bertatik bertara eta irudi errealekin praktikatzen jartzeko asmoz, ikasturtean zehar irteera hauek egitea aurreikusten da: Lehenengo ebaluazioan Bilboko Berreginen Museora, bigarren ebaluazioan Bilboko Arte Ederretako Museora eta hirugarren ebaluazioan Guggenheim Museora.

IKT erabilera

Ikasgelan digitalizazioa ikaskuntza-prozesuak garatzeko elementu lagungarria izango da. Izan ere, hainbat ataza garatzeko plataforma izateaz gain informazio iturri zein erreminta bezala ere erabil daitezke digitalizazioak eskaintzen dituen proposamenak. Adibidez, ikasleek Google Workspacen (Gmail, Drive, Classroom...) duten kontua erabiliko dute lanak eta materialak partekatzeko, korreoak bidaltzeko, etab.

Curriculum erabakiak			
Funtsezko konpetentziak	Oinarrizko irakaskuntza bukatzean zehazten den ikasleen irteera-profilean jasotzen diren funtsezko konpetentziak honako hauek dira: ● Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia (HKK). ● Konpetentzia eleaniztuna (KE). ● Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia (STEM). ● Konpetentzia digitala (KD). ● Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII). ● Herritartasunerako konpetentzia (HK). ● Ekintzailetza-konpetentzia (EK). ● Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia (KAKK).		
Konpetentzia espezifikoak		**Deskriptoreak**	**Ebaluazio-irizpideak**
1) Arte-terminologia espezifikoa ezagutu eta erabiltzea, Artearen Historiako edozein garaitako artelanen eta artisten ezaugarri formal, tekniko eta adierazkor esanguratsuenak argi eta koherentziaz adierazteko, eta norberaren gogoetak arin, ahoz edota sintesi, laburpen, txosten, aipamen edo berezko		HKK1, HKK2, KE1, KE2, DK1, DK2, PSIIK1.1, PSIIK3.2, PSIIK5, EK2,	1.1. Artearen historiaren jakintzagaiko terminologia espezializatuari dagozkion kontzeptu nagusiak ezagutzea eta erabiltzea, kontzeptu horiek behar bezala aplikatuz edozein garaitako obra orori buruzko irizpen formalak eta teknikoak argitasunez eta koherentziaz adierazteko, gogoeta pertsonalak

aurkezpenen bidez komunikatzeko.	KKAK1, KKAK2.	arin komunikatzeko eta norberaren produktuak egiteko.
2) Estilo artistiko nagusiak identifikatzea eta ezaugarritzea, informazioa hautatuz eta haien artean sortzen diren eragin-, mailegu-, jarraitutasun- eta haustura-harremanak ezagutuz, artearen historiaren bilakaera zuzentzen duten mekanismoak ulertzeko eta edozein garai eta kulturatako arte-adierazpe-nekiko errespetua eta estimua garatzeko.	HKK1, HKK2, KE1, KE2, DK1, DK2, PSIIK1.1, PSIIK3.1, PSIIK3.2, PSIIK5, HK1, KKAK1, KKAK2.	2.1. Historiako estilo artistiko nagusiak identifikatzea, informazioa hautatuz, oinarrizko ezaugarriak eta horiek denboran izan duten garapena deskribatuz eta arte-adierazpen guztiekiko errespetua erakutsiz. 2.2. Artearen historiaren bilakaera zuzentzen duten mekanismoak ezagutzea eta azaltzea, zenbait garaitako artelanen analisi konparatibotik, eta estiloen, artisten eta mugimenduen artean sortzen diren eragin, mailegu, jarraipen eta hausturako erlazioen azalpenetik abiatuta.
3) Arte-adierazpen garrantzitsuenak aztertzea eta espazioan eta denboran kokatzea, haien ezaugarri teknikoak, formalak, funtzioa eta ingurune sozial, politiko eta kulturala iruzkinduz, artelanak eta artistak korronte jakin baten adierazle gisa eta bere garaiko eta esparruko adierazpide gisa baloratzeko eta bere sormena balioesteko.	HKK1, HKK2, KE1, KE2, DK1, DK2, PSIIK1.1, PSIIK3.1, PSIIK3.2, PSIIK5, HK1, HK3, KKAK1, KKAK2.	3.1. Zenbait hizkuntza, mugimendu artistiko eta garaitako artelanak aztertzea eta iruzkintzea, haien ezaugarri bereziak (teknikoak, formalak, funtzioa...) antzemanez baita egileak dagozkien korronteen adierazgarri gisa ere, prozeduraren ikuspegi orokorra erakutsiz eta sormena baloratuz. 3.2. Artelanak beren testuinguru ideologikoan, erlijiosoan, sozialean, politikoan, kulturalean eta ekonomikoan kokatzea, aurreiritziak saihestuz, erlazio horiek azalduz eta aurreko eta ondorengo testuinguruekin loturak bilatuz, irizpen kritiko eta arrazoitu baten bidez.
4) Arte-mintzairak ezagutzea eta ideien, desioen eta emozioen komunikazio eta adierazpide estetikorako bide gisa identifikatzea, esparru artistikoarekin zerikusia duten komunikazio-egoeretan jarrera kooperatiboz parte hartuz, nork bere iritziak eta sentimenduak koherentziaz eta	HKK1, HKK2, KE1, KE2, DK1, DK2, PSIIK3.1, HK1, HK3,	4.1. Arte-mintzairak ezagutzea, garai, une historiko, kultura, genero, estilo edo artista bakoitzari dagozkion bai teknikak, bai kode adierazgarriak eta bisualak ezagutuz. 4.2. Artelanak komunikabide gisa betetzen duten paperari

arintasunez adierazteko, besteen estimazio eta adierazpideekiko errespetua eta enpatia gordeta.	KKAK1, KKAK2.	buruzko iritziak sortzea, esparru artistikoarekin lotutako komunikazio-egoeretan jarrera kooperatiboz parte hartuz, ideiak argi, koherentziaz eta arintasunez adieraziz, eta besteen iritzi eta adierazpenekiko errespetua eta enpatia erakutsiz.
5) Arteak historian zehar izan dituen funtzioak eta kontzeptzioak bereiztea eta aztertzea, informazioa modu kritikoan hautatuz eta aztertuz eta horren ikuspegi orokorra lortuz, ekoizpen anitzak giza sormenaren emaitza gisa baloratzeko eta artelanei buruzko iritzi arrazoituak eta informatuak emateko.	HKK1, HKK2, KE1, KE2, DK1, DK2, PSIIK1.1, PSIIK1.2, PSIIK3.1, PSIIK3.2, PSIIK5, HK1, HK3, KKAK1, KKAK2.	5.1. Zenbait artelanek beren testuinguruari dagokionez betetzen duten funtzioa bereiztea, informazioa hautatzetik eta adibide zehatzak aztertzetik abiatuta, horren guztiaren ulermen eta irizpen kritiko eta arrazoitua erakutsiz. 5.2. Artearen kontzepzioa historian zehar modu kritikoan aztertzea eta azaltzea, artearen kodeak, mintzairak, sinboloak eta interpretazioak aintzat hartuz, ekoizpenen aniztasuna, giza sormenaren emaitza gisa, modu arrazoituan eta informatuan baloratuz eta haiekiko errespetua erakutsiz.
6) Artearen historian izandako aldaketa estetikoak eta edertasun-kanonak deskribatzea, zenbait estilo, garai eta tokitako artelanen arteko analisi konparatiboak eginez, artisten eta irudikatutako pertsonaien psikologia eta asmoa atzematen ikasteko, eta aniztasunarekiko sentsibilitatea eta errespetua lortzea ahalbidetuko duen heldutasun pertsonala lortzeko, estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz.	HKK1, HKK2, KE1, KE2, DK1, DK2, PSIIK1.1, PSIIK1.2, PSIIK3.1, PSIIK5, HK1, HK3, KKAK1, KKAK2.	6.1. Artearen historian edertasunaren ideia sozialak eta filosofikoak eta haren proiekzio estetikoko kanonek izan duten bilakaera ezagutzea eta azaltzea, dagozkien artelanetan identifikatuz eta etapa bakoitzeko ikuspegi nagusia aztertuz, aldi desberdinetako adibideen azterketa konparatiboaren bidez. 6.2. Estilo eta garai desberdinetako artelanetan edertasun-kanon desberdinei buruzko nork bere argudioak egitea, irudikapen horien formak eta helburuak
7) Tokiko, nazioko eta munduko Ondare Artistikoa identifikatzea eta baloratzea, identitate indibidual eta kolektiboak eta kulturalak definitzen eta transmititzen dituen elementu gisa, betiere haren funtzioen eta kudeaketaren	HKK1, HKK2, KE1,KE2, DK1, DK2, PSIIK1.2,	7.1. Artelan nabarmen batzuk kultura-adierazpen eta identitate indibidual eta kolektiboen adierazpen transmisore gisa definitzen dituzten elementuak identifikatzea, horretan lagungarri izan diren baliabide estetiko eta ikonografikoen erabilera, modu

adibide zehatzak modu kritikoan eta elkarrizketaren bidez ikertuz eta aztertuz, ondare artistikoaren kontserbaziorako eta hedapenerako konpromiso arduratsua hartzeko eta Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzearekin erlazionatzeko.	PSIIK4, PSIIK5, HK1, HK4, EKK1, KKAK1, KKAK2.	kritikoan eta elkarrizketan, historiaren garai guztietako adibide zehatzak aztertuz. 7.2. Ondare artistikoaren garrantzia azaltzea eta baloratzea, ondare hori eskuratzeko, kontserbatzeko eta hedatzeko prozesuei buruz eta haren funtzioei buruz ikertuz, ondare hori arautzen duten legeen existentzia ezagutuz, artista sortzailearekin zerikusirik ez duten ekintzek arte-lanetan duten eragin positiboaz eta negatiboaz jabetuz eta egungo artea Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko kontzientziazio-tresna gisa hartuz.
8) Artearen Historiaren ikasketan genero-ikuspegia txertatzea, obra garrantzitsuetan aztertuz emakumeak zer zeregin bete duen eta emakumeen zer irudi eman den estilo eta mugimendu artistikoetan, emakumezko artistak ikusarazteko eta benetako berdintasuna sustatzeko.	HKK1, HKK2, KE1, KE2, DK1, DK2, PSIIK1.2, PSIIK5, HK1, HK2, HK3, KKAK1, KKAK2.	8.1. Artearen historiako emakumezko figura nagusien ibilbidea eta garrantzi artistikoa ezagutu eta azaltzea, emakumea artista gisa ikusaraziz, bere lanaren garapenaren testuinguru politiko, sozial eta kulturala aztertuz, eta testuinguru horretan bere burua baliatzeko egindako ahalegina aintzatetsiz. 8.2. Emakumeek artearen historian duten irudiaren eboluzioa kritikoki aztertzea, hainbat mugimendu, artelan garrantzitsuen iruzkina, eta irudi femeninoa irudikatuta dagoen zenbait garai eta kulturatako obren analisi konparatiboa eginez, elementu teknikoetan, formaletan eta estilistikoetan oinarrituta.
Oinarrizko jakintzak		
A. Artearen historiari hurbilketa 1. Artearen terminologia eta hiztegi espezifikoa, arkitekturan, eskulturan eta pinturan.* 2. Arte-ekoizpenak aztertzeko tresnak: elementu teknikoak, formalak eta estilistikoak, haien esanahia, identifikazioa, testuingurua eta garrantzia.		

Analisi konparatiboa.*
3. Artearen kontzeptua eta funtzioak historian zehar.*
4. Arte-mintzairak komunikazio-bide gisa. Artean dauden askotariko kodeak. Sormeneko eta iritzi estetikoko subjektibotasuna.*
5. Eraginak, maileguak, jarraipenak eta hausturak Artearen historian.*
6. Herritartasun etikoa ingurune analogiko eta digitaletan: artelana, egile-eskubideak eta jabetza intelektualarekiko errespetua. Informazioa, desinformazioa eta manipulazioa.*

B. Artea eta bere funtzioak historian zehar

1. Artea eta bere funtzio magiko-erlijiosoa. Historiaurreko artea: interpretazio-teoriak, ezaugarri nagusiak, aroak eta adibideak. Labar-artea eta Arte higigarria Europan.* Arte etnikoa historiaurreko kulturak ulertzeko laguntza gisa.
2. Artea eta bere funtzio politikoa, boterearen komunikazio-tresna gisa. Testuinguruan kokatutako kasuen azterketa, ezaugarri nagusiak, aroak, artistak, adibideak eta bilakaera:
   - Arte mesopotamiarra, Arte egiptoarra eta Arte erromatarra.*
   - Gustuaren ordenamendu ofizialaren erabilera napoleonikoa: Arte neoklasikoa.*
   - Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko Errealismo sozialista, estetika faxista italiarra, nazi alemaniarra eta haren interpretazioa Espainia frankistan: pentsamendu politikoaren adierazpenaren adibideak arkitekturan, eskulturan, pinturan, karteletan, argazkilaritzan eta zineman.
   - Artearen eta interes politiko eta ekonomikoen arteko harremana, Aro garaikideko herritar berriak prestatzeko.
3. Artea eta bere funtzio estetikoa. Arte grekoaren azterketa, testuinguruan kokatzea, ezaugarri nagusiak, aroak, artistak, adibideak eta bilakaera.*
4. Artea eta bere funtzio propagandistikoa. Artea kontsumo-gizartean —artelana kontsumo-objektu gisa eta publizitatea gizartearen isla gisa (gustuak, ezinikusiak eta kontsumo-ohiturak)—. Pop art-etik artelanen auraren galerara, Walter Benjamin-en iritziz.*
5. Artea eta bere funtzio pedagogiko erlijiosoa gizarte teozentrikoetan. Azterketa, testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak, bilakaera eta kasuen arteko erlazioa:
   - Arte paleokristaua eta Arte bizantziarra.*
   - Arte islamiarra Penintsula iberikoan.*
   - Arte erromanikoa eta Arte gotikoa.*

- Arte erromanikoaren eta Arte gotikoaren gorabehera Euskal Herrian.*

6. Artea eta gizarte-bereizle gisa betetzen duen funtzioa: mezenasgoa eta bilduma- zaletasuna. Azterketa, testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak, bilakaera eta kasuen arteko erlazioa:

- Errenazimenduko artea.*
- Arte barrokoa.*
- Errenazimendua eta Barrokoa Euskal Herrian.*

7. Artea eta bere funtzio kritikoa. Azterketa, testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak, bilakaera eta kasuen arteko erlazioa:

- Goyaren pintura.*
- Erromantizismoa.*
- Errealismoa.*
- Dadaismoaren ukapenetik eta transgresiotik Surrealismoaren baieztapenera.*
- Neodadaismoa.*
- Pop artea.*

8. Artea, eta arteak sentimenduak eta emozioak komunikatzeko betetzen duen funtzioa. Testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak eta bilakaera:

- Erromantizismoa.*
- Pintura inpresionista eta postinpresionista.*
- Fauvismo frantziarra.*
- Espresionismoa eta Espresionismo abstraktua.*

9. Artea eta aurrerapen teknologikoak, Industria Iraultzatik aro digitalera.

- Industria Iraultza: material berriak, joera arkitektoniko berriak, espazioaren ikuskera berria eta hiri-zabalguneak.*
- Testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak eta bilakaera:
- Funtzionalismo arkitektonikoa.*
- Futurismoa.*
- Argazkilaritzaren eta zinemaren iraultza.

- Postmodernitatea eta Arte digitala.

10. XIX. eta XX. mendeetako artea Euskal Herrian. Adibideak: Adolfo Guiard, Arteta, Iturrino, Oteiza eta Chillida. Pintura berria eta euskal eskultura: Ruiz Balerdi, Zumeta, Dora Salazar, Txomin Badiola, Cristina Iglesias, Juan Luis Moraza.*
11. Artisautzatik diseinura. Testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak eta bilakaera: Modernismoa, Art Noveau eta Art Decó.*
12. Artea eta Abstrakzioa. Testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak eta bilakaera:

- Kubismoa.*
- Suprematismoa eta Neoplastizismoa.*
- Abangoardiako eskultura.*
- Europako Informalismoa.*
- Abstrakzio postpiktorikoa.*

C. Artearen dimentsio indibidual eta soziala

1. Artea eta identitate indibiduala eta kolektiboa. Geure burua irudikatzeko beharra: giza gorputzaren irudia eta erretratua. Artistaren irudiaren bilakaera. Eskolak, erregionalismoak eta identitate kolektiboak.*
2. Emakumea artean:

- Emakumearen irudikapena, ikuspegi kritikotik.*
- Emakumeak artista gisa eta ikusgarritasuna lortzeko egin duten borroka, historian zehar. Artemisia Gentileschi-tik Helen Frankenthaler-era.*

3. Ondare artistikoa: balio soziala, kulturala eta memoria kolektibokoa. Zaintza, kontserbazioa, zaharberritzea eta erabilera jasangarriak. Museografiaren eta Museologiaren arteko aldea eta elkarren osagarriak. Ondare nazionalaren legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ondarearen legea.*

D. Errealitatea, espazioa eta lurraldea Artean

1. Pintura, espazioa eta perspektiba: hirugarren dimentsioaren konkista.*
2. Arkitektura eta espazioa: espazio arkitektonikoen sorrera. Funtzionalismo eta Arrazionalismo arkitektonikoa.*
3. Artea eta lurraldean esku hartzea: hirigintza arte gisa.*

4. Arkitektura eta hirigintza Euskal Herrian.*
5. Artea eta ingurumena.
   - Arkitektura, hirigintza eta diseinu jasangarria.
   - Arteak Garapen Iraunkorreko Helburuei egiten dien ekarpena.*

Curriculumaren plangintza			
Unitate didaktikoaren/ Ikaskuntza-egoeraren izenburua	**Konpetentzia espezifikoak**	**Ebaluazio- irizpideak**	**Oinarrizko jakintzak**
Lehen hiruhilekoa			
1.Artearen hastapenak	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8.2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 1 C 1, 2, 3
2.Arte Klasikoa: Greziako artea	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8,2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 3 C 1, 2, 3
3.Arte klasikoa: Erromako artea	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8,1, 8.2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 2 C 1, 2, 3
4.Arte paleokristaua, arte bizantziarra eta islamiarra	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8,2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 5 C 1, 2, 3

Bigarren hiruhilekoa			
5.Arte Erromanikoa	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8,2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 5 C 1, 2, 3
6.Arte Gotikoa	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8,2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 5 C 1, 2, 3
7.Errenazimenduko Artea	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8,2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 6 C 1, 2, 3
Hirugarren hiruhilekoa			
8.Arte Barrokoa (*Rococo*-a)	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8,2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 6 C 1, 2, 3
9.Neoklasizismoa eta erromantizismoa	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8,2	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 2, 7 C 1, 2, 3
10.Arte Garaikidea - Arkitektura (XIX-XX.mendeak)	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6, KE7, KE8	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 9, 11 C 1, 2, 3 D 2, 3, 4, 5
11.Arte Garaikidea - Eskultura eta pintura garaikideak (XIX-XX.mendeak)	KE1, KE2, KE3, KE4, KE5, KE6,	1.1, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1,	A 1, 2, 3, 4, 5, 6 B 4, 7, 8, 10, 12

	KE7, KE8	7.2, 8.1, 8,2	C 1, 2, 3 D 1

Ebaluazioari, kalifikazioari eta hauen ondorioei buruzko erabakiak
Ebaluazioa *Ebaluazioaren helburua, denborak, eragileak, teknikak, tresnak eta erremintak.*
Helburua Ebaluazioa **hezitzailea** izango da. Ikasleen **aurrerapenak identifikatzera eta** ikasleek izan ditzaketen **zailtasunak hautematera** bideratuta dago; irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten **erabakiak hartu** daitezen. Horrela, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokituko da. Ikasleen ikasketak ez ezik, **ikasteko prozesuak ere** ebaluatuko dira. Ebaluazioa **konpetentziak ebaluatzera zuzendu**ko da (ez oinarrizko jakintzak ebaluatzera). Konpetentzia espezifikoen **ebaluazio-irizpideak** izango dira ikaskuntza-prozesuen **erreferente.** **Denborak** Ebaluazioa **globala, etengabea eta prestakuntzakoa** da. Ebaluazioa **eguneroko jardunean txertatuta** egongo da eta ez soilik bukaeran. Era berean, **hasierako ebaluazioa** egingo da ikasleen maila ezagutzeko eta ikasturtea amaitzean, **azken ebaluazio-saioa** egingo da ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren. **Eragileak** Autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa. **Tresnak eta erremintak**

Askotariko ebaluazio-tresnak (ebidentziak, ikasleen ekoizpenak) erabiliko dira ikasleen ezaugarri eta premietara egokituz: aurkezpenak, froga idatziak, ahozko frogak, iruzkinak, galdetegiak, etab. Ebaluazio-erremintak ere askotarikoak izan daitezke: errubrikak, kontrol-zerrendak, etab.

Kalifikazioa

Kalifikazio-irizpideak: konpetentzien ponderazioa, ebaluazio-irizpideen ponderazioa eta ebaluazio-irizpideen jardun-maila

Kalifikazioa kualitatiboa izango da eta ebaluazioaren **emaitzak** 0tik 10era adieziko dira.

Kalifikazioa **konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideen arabera** egingo da. Ebaluazio-irizpideen ponderazioan oinarriturik, konpetentzia espezifiko bakoitzerako kalifikazioa lortuko da; eta hauek ponderatuz, ikasgaiarena.

Ebaluazio-irizpideak **lorpen-adierazleetan aletu**ko dira. Ikasturtean zehar baturiko ebaluazio tresnek lorpen adierazleen lorpen maila zehaztuko dute. Lorpen adierazleak ponderatu daitezke. Lorpen adierazleak unitate didaktikoaren/ikas-egoeraren txantiloian zehaztuko dira.

Jardun mailak ebaluazio-irizpidea gainditutzat emateko lortu beharreko **minimoa zehaztu**ko du.

Konpetentzia espezifikoa	%	Ebaluazio-irizpidea	%	Ebaluazio-irizpideen jardun-maila (ebaluazio-irizpidea gainditutzat emateko lortu beharreko minimoa)
KE1	15	1.1	100	1.1. Artearen historiaren jakintzagaiko terminologia espezializatuari dagozkion kontzeptu nagusiak ezagutzea eta erabiltzen ditu, kontzeptu horiek behar bezala aplikatuz edozein garaitako obra orori buruzko irizpen formalak eta teknikoak argitasunez eta koherentziaz adierazteko, gogoeta pertsonalak arin komunikatzeko eta norberaren produktuak egiteko.
KE2	20	2.1	60	2.1. Historiako estilo artistiko nagusiak identifikatzen ditu, informazioa hautatuz, oinarrizko ezaugarriak eta horiek denboran izan duten garapena deskribatuz eta arte-adierazpen guztiekiko errespetua erakutsiz.

		2.2	40	2.2. Artearen historiaren bilakaera zuzentzen duten mekanismoak ezagutzen eta azaltzen ditu, zenbait garaitako artelanen analisi konparatibotik, eta estiloen, artisten eta mugimenduen artean sortzen diren eragin, mailegu, jarraipen eta hausturako erlazioen azalpenetik abiatuta.
KE3	15	3.1	60	3.1. Zenbait hizkuntza, mugimendu artistiko eta garaitako artelanak aztertzen eta iruzkintzen ditu, haien ezaugarri bereziak (teknikoak, formalak, funtzioa...) antzemanez baita egileak dagozkien korronteen adierazgarri gisa ere, prozeduraren ikuspegi orokorra erakutsiz eta sormena baloratuz.
		3.2	40	3.2. Artelanak beren testuinguru ideologikoan, erlijiosoan, sozialean, politikoan, kulturalean eta ekonomikoan kokatzen ditu, aurreiritziak saihestuz, erlazio horiek azalduz eta aurreko eta ondorengo testuinguruekin loturak bilatuz, irizpen kritiko eta arrazoitu baten bidez.
KE4	10	4.1	80	4.1. Arte-mintzairak ezagutzen ditu, garai, une historiko, kultura, genero, estilo edo artista bakoitzari dagozkion bai teknikak, bai kode adierazgarriak eta bisualak ezagutuz.
		4.2	20	4.2. Artelanak komunikabide gisa betetzen duten paperari buruzko iritziak sortzen ditu, esparru artistikoarekin lotutako komunikazio-egoeretan jarrera kooperatiboz parte hartuz, ideiak argi, koherentziaz eta arintasunez adieraziz, eta besteen iritzi eta adierazpenekiko errespetua eta enpatia erakutsiz.
KE5	10	5.1	60	5.1. Zenbait artelanek beren testuinguruari dagokionez betetzen duten funtzioa bereizten du, informazioa hautatzetik eta adibide zehatzak aztertzetik abiatuta, horren guztiaren ulermen eta irizpen kritiko eta arrazoitua erakutsiz.
		5.2	40	5.2. Artearen kontzepzioa historian zehar modu kritikoan aztertzen eta azaltzen du, artearen kodeak, mintzairak, sinboloak eta interpretazioak aintzat hartuz, ekoizpenen aniztasuna, giza sormenaren emaitza gisa, modu arrazoituan eta informatuan baloratuz eta haiekiko errespetua erakutsiz.
KE6	10	6.1	80	6.1. Artearen historian edertasunaren ideia sozialak eta filosofikoak eta haren proiekzio estetikoko

				kanonek izan duten bilakaera ezagutzen eta azaltzen du, dagozkien artelanetan identifikatuz eta etapa bakoitzeko ikuspegi nagusia aztertuz, aldi desberdinetako adibideen azterketa konparatiboaren bidez.
		6.2	20	6.2. Estilo eta garai desberdinetako artelanetan edertasun-kanon desberdinei buruzko nork bere argudioak egiten ditu, irudikapen horien formak eta helburuak identifikatuz, aniztasuna aberastasun-iturri gisa aintzat hartuz eta estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz.
KE7	10	7.1	50	7.1. Artelan nabarmen batzuk kultura-adierazpen eta identitate indibidual eta kolektiboen adierazpen transmisore gisa definitzen dituzten elementuak identifikatzen ditu, horretan lagungarri izan diren baliabide estetiko eta ikonografikoen erabilera, modu kritikoan eta elkarrizketan, historiaren garai guztietako adibide zehatzak aztertuz.
		7.2	50	7.2. Ondare artistikoaren garrantzia azaltzen eta baloratzen du, ondare hori eskuratzeko, kontserbatzeko eta hedatzeko prozesuei buruz eta haren funtzioei buruz ikertuz, ondare hori arautzen duten legeen existentzia ezagutuz, artista sortzailearekin zerikusirik ez duten ekintzek arte-lanetan duten eragin positiboaz eta negatiboaz jabetuz eta egungo artea Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko kontzientziazio-tresna gisa hartuz.
KE8	10	8.1	70	8.1. Artearen historiako emakumezko figura nagusien ibilbidea eta garrantzi artistikoa ezagutu eta azaltzen du, emakumea artista gisa ikusaraziz, bere lanaren garapenaren testuinguru politiko, sozial eta kulturala aztertuz, eta testuinguru horretan bere burua baliatzeko egindako ahalegina aintzatetsiz.
		8.2	30	8.2. Emakumeek artearen historian duten irudiaren eboluzioa kritikoki aztertzen du, hainbat mugimendu, artelan garrantzitsuen iruzkina, eta irudi femeninoa irudikatuta dagoen zenbait garai eta kulturatako obren analisi konparatiboa eginez, elementu teknikoetan, formaletan eta estilistikoetan oinarrituta.

Konpetentzia Espezifiko hauek neurtzeko erabiliko diren tresnak eta ponderazioak:

- Proiektuak: %35
- Proba idatziak: %45
- Eguneroko lanak: %10
- Jarrera %10

Era honetan lortzen diren zenbakizko kalifikazioek, hurrengo baliokidetza izango dute kalifikazioa kualitatiboekin:

Kalifikazio kualitatiboa	**Zenbakizko kalifikazioa**
Gutxiegi	0-4,9
Nahikoa	5-5,9
Ongi	6-6,9
Oso ongi	7-8,9
Bikaina	9-10

Ebaluazioaren ondorioak

Errefortzu-neurriak eta egokitzeko-neurriak, curriculuma zabaltzeko eta aberasteko proposamenak, berariazko programatan parte hartzea

Errefortzu-neurriak eta egokitzeko-neurriak

Ikasleek lortutako emaitzen analisiari buruzko ondorioetatik abiatuta, beharrezkoak diren **neurriak ezarri**ko dira curriculumaren,

antolamenduaren eta, bereziki, irakaskuntza-praktikaren esparruan.

Errefortzua behar duten ikasleei material gehigarria edota egokitua eskainiko zaie (eskemak, laburpenak, taulak...) eta, beharrezkoa denean, Hedatze saioetan parte hartuko dute.

Halaber, ikasgaia **pendiente** duten ikasleek Hedatze saioetan parte hartuko dute. Irakasleak proposatutako berreskurapen-lana egingo dute ikasgaia gainditzeko.

Ikasgaia ondo menderatzen dutela erakusten duten ikasleei eduki jakin batzuetan sakontzeko aukera emango zaie. **Sakontze jarduerak** anitzak izan daitezke: gaiarekin lotutako testuak, albisteak, mapak, grafikoak, pelikulak... aztertzea eta iruzkintzea.

Progamazioaren jarraipena eta ebaluazioa				
Ebaluatuko den alderdia		**Indarguneak**	**Zailtasunak**	**Hobekuntza-proposamena**
	Atazen eta material didaktikoaren diseinua.			
	Erabilitako baliabideen aukeraketa.			
	Irakaslearen eta ikasleen rolak.			
	IDU printzipioen aplikazioa.			

Erabaki metodologikoak	Taldekatzeak eratzeko irizpideak.			
	Egokitzapenak.			
	Espazioaren antolaketa.			
Ebaluatuko den alderdia		**Indarguneak**	**Zailtasunak**	**Hobekuntza-proposamena**
Antolaketa curricularra	Programazio-unitateen sekuentzia.			
	Programazio-unitateen antolaketa.			
	Konpetentzia espezifikoen eta ebaluazio irizpideen arteko lotura.			
	Oinarrizko jakintzen antolaketa.			
Ebaluatuko den alderdia		**Indarguneak**	**Zailtasunak**	**Hobekuntza-proposamena**

Ebaluazioa eta kalifikazioa	Erabilitako erremintak.			
	Erabilitako tresnak.			
	Heteroebaluazioaren diseinua eta plangintza.			
	Errefortzu-neurriak egokiak izan dira.			